

A, ante, cabe, con, contra, de, desde el género

La directora de cine laudiotarra Estibaliz Urresola señala que el cine hecho por mujeres no es un género. Entiendo la necesidad de vindicar el hecho de hacer cine como suficiente valor para enjuiciar una película. Una película escrita, dirigida o interpretada por mujeres, es una película y no debe tener otra consideración para su análisis que los valores cinematográficos que atesore. No vayamos ahora a usar un



Carlos GIL ZAMORA
Analista cultural

machismo paternalista de rebote mirando a todo lo que en el campo del arte realizado por mujeres como una excepción. Es bochornoso escuchar o leer ciertas apreciaciones sobre la llegada de una nueva generación de mujeres cineastas que están proponiendo un cine actual, cercano, que tiene una aceptación popular que significa su importancia además de recibir el reconocimiento profesional al igual que premios significativos. En las Artes Escé-

nicas sucede algo parecido. Son mujeres jóvenes las que están copando puestos de responsabilidad, dirigiendo propuestas escénicas relevantes, atrevidas y con reconocimiento general, además de estar siempre en las nominaciones de los premios profesionales. Y no se aplica, si es que alguna vez se hizo, la discriminación positiva. Se han ganado su posición en el escalafón y las agendas a base de talento, estudio, preparación y constancia.

«Arrabioen gerra» eta «Independentzien eguzkiak» itzuli dituzte Navarrok eta Jakak

Erein eta Igela argitaletxeek Literatura Unibertsala bildumako 187. eta 188. lanak argitaratu berri dituzte, Karel Capek-en «Arrabioen gerra», Koro Navarrok itzulia, eta Ahmadou Kouroumaren «Independentzien eguzkiak», Aiora Jakak euskarara ekarria. Atzo aurkeztu zituzten liburuok Donostian.



Aiora Jaka eta Koro Navarro, itzuli berri dituzten lanekin. Jon URBE | FOKU

Alaia SIERRA | DONOSTIA

Karel Capek txekiarraren «Arrabioen gerra» liburua eta Boli Kostako Ahmadou Kouroumaren «Independentzien eguzkiak» lana euskaratu dituzte Koro Navarrok eta Aiora Jakak, hurrenez hurren. Erein eta Igela etxeek argitaratu di-

tuzte Literatura Unibertsala bilduman, 187. eta 188. zenbakiz. Atzo Donostian egindako aurkezpenean Manu Lopez Gaseni EIZIE itzultzaileen elkartearen lehendakariak laudatu zuenez, bilduma honetako liburuak aurkeztea «beti festa bat da». Bidean dauden beste batzuekin eta esleitu

behar diren hiru itzulpenekin bildumaren aroari amaiera emango diotela iragarri zuen.

«**Arrabioen gerra**» Jatorriz txekieraz idatzitako «Arrabioen gerra» euskaratu du Navarrok. Poloniatik oso gertu jaiotako Karel Capek idazlearen obra. 1936an argitaratu zen lehenen-

goz eta Txekiar Errepublikan eskoletan ezinbestekoa den lan ezaguna bihurtu dela azaldu du itzultzaileak, baina hemen ez, «gortina baten atzean bizi izan garelako».

Sudeteetako herri batean jaio zen Capek, naziak iritsi baino lehen ere alemana nagusi zen tokian. Egoera horre-

BESTSELLERRAK

Koro Navarrok berak itzultitako Karel Capek-en lana nahiz Aiora Jakak itzultitakoa «bestsellerak izatea merezi» dutela adierazi zuen atzoko aurkezpenean, biak «zoragarriak direlako», nahiz eta «guretzat nahiko ezezagunak» izan.

tan, idazle antifaxistak eta abertzaleak txekiera bultzatu zuen, bereziki itzulpenen bidez, Navarrok nabarmendu duenez. «Robot» hitzaren asmatzailea da Capek. Orain euskaraz argitaratutakoa haren azken lana izan zen; 1938an hil zen, nazien heriotza zigorra ezarrita zeukan arren.

Surrealismoa eta umorea nabarmentzen badira ere, estilo eta genero desberdinak lantzen dira liburuan, ataletan banaturik. Aldaketa hauek «oso politak» dira Navarorentzat, eta itzulpen jardunean «primeran» pasatu duela aitortu zuen.

«**Independentzien eguzkiak**» Afrikako lanak euskaratzeko helburuarekin sartu dute Ahmadou Kouroumaren «Independentzien eguzkiak» bilduman, argitu zuen Erein eta Igela argitaletxeen ordezkarri Inazio Mujikak.

Frantsesez idatzitako liburua den arren, «malinkerez pentsatutakoa» dela azaldu zuen Mujikak, etnia horretakoa baitzen Korouma.

1968an argitaratu zen, baina Estatu frantsesean ez zuten onartu. Afrikako kolonialismoari eta honen ondoko erre-gimenei kritika egin zien.

Animalia eta landare exotikoekin lotutako atsoitzak eta hizkera klasikoa ez erabiltzea oztupo izan dira itzultzailearen lanean, eta euskarazko sintaxira moldatu behar izan du batzuetan. Dena den, «gustura irakurtzen den liburua da».